

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Praxku Belauntzaran San Sebastian

*Urnieta,
Gipuzkoa
(1929-2017)*

Aurkibidea



Biografia



Urnietako Eizmendi baserrian jaio zen, hamar senidetan zaharrena. Aita urnietarra zuen eta ama, berriz, Abaltzisketakoa. Bola-jokoan ibiltzea izugarri gustatu izan zaio eta ehiztari amorratua izan da. Praxkuk ederki ezagutzen ditu Urnietako mendiak, baita herriko lur azpiko ur-instalazio guztiak ere. Izan ere, lan askotan jarduna bada ere (morroi, besteak beste), baserrirako gogorik ez omen zuen inoiz izan eta igeltsero sena hain barneratua izanik, Urnietako Udalarentzat lan egiteko eskatu zioten gaztea zela. Hasieran zenbait mantentze-lan txiki egiten hasi bazen ere, gero herriko uren kargua eman zioten eta, azkenik, ehorzle (enterradore) lana ere bai. Oraindik ere Udaletxetik laguntza noiznahi eskatzen omen diote eta berak, ahal duen neurrian, gustura laguntzen omen du. 2009an Urnietako Udalak eta Iñistor elkarteak "Urnietar prestu" izendatu zuten.

Zintak

URN-011

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-01-05
- **Iraupena:** 132 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Alkorta Agirrezabala, Jon

Pasarteak

1. Urnietako aldeko mendi "zilegiak"

- **Erref:** URN-011/003
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:05:37. **Bukatu:** 00:07:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak

Laburpena:

"Zilegiak" deitzen zitzairen Urnietako inguruko herri-basoei. Sail ikaragarriak ziren. "Montes francos", izena aldatu omen zieten gerra ondoren. Gero udalerrri bakoitzak bere parte hartu zuen. Santa Katalina egunean batzarra egiten zen eta familia bakoitzak kobratzen zuen zuraren etekinen parte. Izozte handi batek pinudi guztiak erre zituen.

2. Zilegi mendiak nola saldu zituzten

- **Erref:** URN-011/004
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:07:44. **Bukatu:** 00:10:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak

Laburpena:

Ehun bat lagunek omen zuten parte Urnietako zilegietan. Eztabaida handiak izan zituzten zilegiak saldu ala ez saldu. Azkenean saldu egin ziren, hiru geratu ziren bakarrik bere partearekin. Duela berrogeita hamar urte diru asko omen zen hartu zutena.

3. Zilegiaren funtzionamendua

- **Erref:** URN-011/005
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:10:28. **Bukatu:** 00:12:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak

Laburpena:

Basoa ziren zilegiak. Animaliak ere ugari zebiltzan. Artzainek hainbesteko bat ordaintzen zuten. Diputazioak laguntzen zuen landareekin-eta. Txandaka egin behar izaten zuten lan zilegian parte zutenak.

4. Iñostarra, iñaurkiña, garoa, iratzea...

- **Erref:** URN-011/006
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:12:27. **Bukatu:** 00:14:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

"Iñostarra" (garoa) ekartzen zen mendi zilegietatik. Orain jende askok ez du ezagutzen hitza Urnietan. Oartzunen "iratzea" esaten zaio. Beste izen bat ere badu Urnietan: "iñurkiña". "Harrapazka Eguna" zer zen. San Migel egunera arte igitaiz ebaki behar zen garoa. Handik aurrera libre zen segaz egitea.

5. "Harrapazka Eguna"

- **Erref:** URN-011/008
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:15:23. **Bukatu:** 00:17:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

Su-ziria botatzen zuten Adarra puntan, eta garoa ebakitzen hasteko seinalea zen. "Harrapazka Eguna" esaten zitzaion egun horri. Jendea zain egoten zen, eta goizean goiz toki onenak hartzera abiatzen zen. Aurrez begiz jota izaten zituzten sailik onenak. Gerora, loteak izendatzen hasi ziren leku ezberdinetan.

6. Bidegintza Eguna

- **Erref:** URN-011/009
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:17:35. **Bukatu:** 00:19:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Bidegintza Egun bat ere izaten zen. Ez zuten lan asko egiten baina derrigor presentatu behar zuen familia bakoitzeko batek. Eta ez bakarrik zilegien jabeak (baso-jabeak), baita garoa ekartzen zutenak ere

Transkripzioa

-Ta gero harako bidia iteko eun bat izentatzen zuen, ta holako eunetan guardak abixatzen zun ta. Ez zan bideik eiten, atxurra bizkarrian hartu ta.... Eguna pasatzen zan.

-Ta bidia zer egiten zan, oinezkuentzako edo burdientzako?

-Burdientzako ta, zuluak zianian bete... Inontzako ez. Oain de bidiak eiñak kutxariakin eta dana. Ordun iñontzako ez, iñontzako ez. Ze ia kilometro ta erdin [eutsi biharra] izaten zan ez iraultzeko goitik sartuta ta, hala etortzen giñan... ta. Batez, eguna pasa. Ta jun be ez, jun in bihar zendun, e! Gero erariya jartzen zun, ardua edo sagardua nahikua, herriyak, baiño hara... Herriyak edo zilegitako zerak. Hara jun in ber zendun. Han beti presentatu in bihar zendun famili bakoitzetikan bat. Ta holaxe ibiltzen giñen.

-Zilegia zenutenak, edo gainontzekuak ere bai?

-Gaiñuntzekuak'e bai. Handik garua ekartzen zunak'e bai, e! Zilegiz fuera... Zilegia zuenak han zenbat izango giñan ba? Berrogeitamar? Beste ehun igual hangua. Ta haik pena haundina, haik..., garuak eta denak bukatu zian saldu zanian ta. Piñua sartzerakuan'e "Jode, gure garoteiyan sartu behar al dezue hor?". Toki hobenetik hobenea sartzen gendun. Lehenbizi txarrenetikan hasi giñan pagua sartzen. Ni goatzen naiz mutil koskorra, holako pagua, landare txikia ta: "Hau hazitzeko gu akaatuko gaittuk gu".

7. Ama esnearekin egunero Donostiara

- **Erref:** URN-011/011
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:19:31. **Bukatu:** 00:21:36

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak
- Baserría » Baserríko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Mutikoa zela, pago-landareak sartzen ibilia da aitarekin. Maizterrak ziren, familia pobrea. Ama esnearekin joaten zen egunero Donostiara. Ume txikia zela, alboko etxean uzten zuten Praxku hango etxeakoandreaken kargu.

8. Martuteneko kartzelan igeltsero

- **Erref:** URN-011/013
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:23:34. **Bukatu:** 00:26:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Martuteneko kartzelan ere ibili zen igeltsero. Gauetz egiten zuten lan. Lagun asko egin zituen han. Etxean ez zuten erretzen eta errazionamenduko tabakoa sartzen zion atean egoten zen euskaldun bati.

9. Erdaldun artean bizi arren, erdararik ikasi ez

- **Erref:** URN-011/014
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:26:48. **Bukatu:** 00:28:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Beti saltseroa izan da, ez du harremanetarako arazorik izan. Beti erdaldun artean bizi izan da, lanean, soldadutzan..., baina hala ere ez du erdararik ikasi.</p>

Transkripzioa

-Ni oain Urnietako apaizak esaten ditena, ez naiz izandu kortua ta ixilik egotekua. Ta Trintxarpen lanian aitu nintzanian gailleguak danak eta, eta nik erderaz ikasteko abildadeik ez det izandu. Hoi gauza, e! Andriak'e hala esaten dit: "Honbeste urtian kastillanuen tartian ta zea, erderaz ikasteko abildadeik ez...". Ez. Nola pertsona izatia [...]. Ni halakoxia naiz. Sodaduxkan'e kastillano guztikin inportik be ta. Ez; ajolaik be edo... Ez, ez nai... Oain pasadizua eitten det, e! Ni "Tú" esan edo "hi" esan ez dit inportik eta eitten det. Eta apezak lñakik esaten dit makiña bat bider, lñaki deu, erretoria ta: "Zu, Praxku, ez ziñen ba kortua izandu, e!". Ez. Ta honezkeo ez det ikasiko. Ez det biharrik gaiñea, esaten diot. Ez det ikasiko, ez det bihar eta. Arrebak eta, alabak eta, hoik danak. Semiak'e, hoik danak aixe, ta. Ez, ez, ni, ez det izandu. Ta epoka bat ni... nahi ta nahiez ikastekua, ta ez.

-Soldaduxkan ere Guadalupen...
-Soldaduxka Guadalupen, eta ostiral..., geo Iruna jetxi giñan ta ostirelero etxera etortzen giñan. Baiño kastillano tartian beti! Hantxe jokuan ta hika ta mika ta tú ta...
-Bizia izango ziñan zu...
-Buff. geatzen ez nintzana.

10. Ume bihurria izan zen eskolan

- **Erref:** URN-011/015
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:28:26. **Bukatu:** 00:30:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Goiburuko eskolan ibili zuen. Irakurtzen eta dotrina ikasi zuen. Makina bat kaskarreko hartua da. Gaiztoa omen zen maistra. Oso bihurria zen Praxku. Neskekin borrokak.</p>

Transkripzioa

-Maistra Goiburuko eskolan, Goiburuko eskola esaten diou, Barrio Goiburua da hori, Xoxoka du izena plazak, herriyana da, Xoxoka. Ta hor harek letzen dotriña erakusten zun. Letzen erakusten zun ta dotriña. Ta berak ez zun erdraz... Arrue zan, Anjela Arrue. Ta harekin ttiki-ttikitatik eta; makiña bat kaskarreko ematen ziten. Gaxtua... Oaindik esaten dit, oaindik hemen bizi da, neekin eskolan ibilliya; ni mutil koskor ttiki-ttikia, bestiak nere edadekuak hazi ta geo juten zien eskolaa; baiño Rosakin ni ttiki-ttikia eamaten niñun bea juteagatikan. Ta nola ibiltzen nitzen neska guztikin eta ddanakin eta. Maistra etorri, [gorostizko?]holako makilla batekin, kas-kas! Belauntzaran Praxku! Ordutik Praxkua. Kas-kas! eta. Etxera etorri ta nik ez niyon esaten amai ta aitai, e! Kaxkarrian koskorrak. Bai. Oaindik esaten du hor Kukuteko andre batek, Resurrecione: "Praxku, goatzen al zea..." Neska batekin borrokan hasita kosk einda hemen puxka kendu izandu die hemendikan...

-Zuk harei?

-Ez, ez, harek nei. Jota puxka, dio! Joxepa zun izena, Legarralde, Arrieta. Joe! Ni baiño..., nere edadia edo hola zan ta. Iñoi ez nion obeditzen nik, e!

11. Ilea moztu hainbat neskari nazionalistak izateagatik

- **Erref:** URN-011/016
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:30:00. **Bukatu:** 00:33:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Eskolan dena euskaraz ikasi zuten. Gero gerra etorri zen. Maistrari eta beste hainbat neskari ilea moztu zioten nazionalistak izateagatik. Maistra ezkutatuta egon zen baserri batean. Gero maistra erdalduna jarri zuten,

herrena. Dotrina erdaraz; Cara al Sol abesten zuten. Ez du gaitasunik izan erdaraz ikasteko.</p></div>

- **Erref:** URN-011/018 - **Iraupena:** 0:04:36. **Hasi:** 00:35:50. **Bukatu:** 00:40:26 - **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Harrika ibiltzen ziren mutikotan. Katu beltz bat zuten, eta beti hari gaiztakeriak egiten aritzen ziren. Behin, harrika egin zioten arbolan igota zegoela; katua jaitsi eta etxe barruan ezkutatu zen. Katuarekin eta izebarekin gertatutako komeriak.</p></div> - **Erref:** URN-011/019 - **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:40:26. **Bukatu:** 00:41:10 - **Multimedia:** bideoa online ikusgai - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak Beste bihurrikeria bat: behin aharia eraman zuten ispiludun armairuaren aurrera, eta honek hautsi egin zuen buruaz.</p></div> - **Erref:** URN-011/025 - **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:51:07. **Bukatu:** 00:54:31 - **Multimedia:** bideoa online ikusgai - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala Uraren ardura eman zioten. Eginkizunak. Kloroa nola ematen zen. Kale-garbitzaile ere bai Lasarten (orduan Urnietakoa zen parte bat). Ardoa eskaintzen zioten edozein momentutan, eta erdi mozkortuta bukatzen zuen inoiz. Oraindik ere deitzen diote hoditeriaren nondik norakoen berri emateko.</p></div> - **Erref:** URN-011/026 - **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:54:31. **Bukatu:** 00:56:48 - **Multimedia:** bideoa online ikusgai - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Goiburu auzoko urak berak jarri zituen. Apaiza harrituta, ikasketa gabeko batek nola egin zezakeen obra hura... Eskopeta kanoi-zulotik begiratuta kalkulatu zuen errekatxoa altuago zegoela baserria baino.

16. Oilaskoz betetako eltzea harrapatu

- **Erref:** URN-011/028
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:59:40. **Bukatu:** 01:03:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Aita zakarra zuten. Idi-, zerra- eta aizkora-apustueta ibiltzen zen. Parrandazalea. Eta semeak ere berdinak. Erreterian leiho batetik oilaskoz betetako eltzea harrapatu zuten . Berotu eta jan egin zuten kuadrillan, neska eta mutil. Eltze hura gero etxean izan zuten.</p>

17. Luistarren domina kendu dantzan egiteagatik

- **Erref:** URN-011/031
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 01:06:12. **Bukatu:** 01:08:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Luistarren domina kendu zien apaizak neskekin dantza lotuan egiteagatik erromerian. Lagun batek salatu zituen.

18. Neska-laguntzeak eta adar-jotzeak

- **Erref:** URN-011/033
- **Iraupena:** 0:04:33. **Hasi:** 01:08:20. **Bukatu:** 01:12:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Txantxa-zalea izan da. Bera toreatzen ahalegintzen ziren, baina azkenean berak toreatzen zituen denak. Juanita izeneko neska bati baietz etxera lagundu eta ezetz, apustua egin, eta irabazi.

19. Amezketako neska-lagunta xelebrea

- **Erref:** URN-011/034
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 01:12:53. **Bukatu:** 01:15:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Amezketako festetara joan ziren batean, neska-laguntzera abiatu ziren Praxku eta bere laguna. Baina ilunetan okerreko neskei heldu zieten, eta ez ziren berandura arte konturatu. "Geron amak baiño zaharragoak" omen ziren.

20. Neska-laguntzera joan eta arbi-hazitakoa ekarri

- **Erref:** URN-011/037
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 01:17:20. **Bukatu:** 01:20:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Behin Larraitzeko erromeriaren ondoren neska-laguntzera joan ziren laguna eta bera. Neska baten baserrira heltzean, etxekoandreak afaria eman zieten eta berari arbi-hazitakoa, aurrez aginduta zuena.

21. Enterradore hogeita bederatzi urtez

- **Erref:** URN-011/040
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 01:26:48. **Bukatu:** 01:29:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

Enterradore ibili da 29 urtez. Igeltsero lana egin behar izaten da ehorzketetan, eta horrela hasi zen. Eskaini ziotenean, ez zuen zalantzarik izan. Bolari amorratua zen eta asko lotzen zuen enterradore lanak.

22. Epailearekin batera hilotza jasotzera

- **Erref:** URN-011/041
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 01:29:32. **Bukatu:** 01:32:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

Norbait hiltzen zenean, berak joan behar izaten zuen hilotza jasotzera epailearekin. Bere buruaz beste egindakoak ere hainbat egokitu zaizkio. Orain gauzak aldatuta daude. Ehortzi ere errazago egiten dira.

23. Tximistak hildako neska ingelesaren kasua

- **Erref:** URN-011/043
- **Iraupena:** 0:05:03. **Hasi:** 01:33:18. **Bukatu:** 01:38:21

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Emaztearen herrira, Intzara, joan ziren oporretan. Boletan jokatzera itzuli zen Urnietara, eta neska ingeles baten hilotza zegoen depositoan, tximistak jota hilda. Astebete egon zen gorpua depositoan. Mediku alu batekin izandako gorabeherak. Pasatu duen trantzerik txarrena omen.

24. Ahuspez zegoen hilotza

- **Erref:** URN-011/045
- **Iraupena:** 0:05:29. **Hasi:** 01:39:31. **Bukatu:** 01:45:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Behin, hilkutxa irekitzeko agindu zioten, eta hilotza ahuspez aurkitu zuen, buelta emanda. Bizirik ehortzi ote zuten?

25. Orain hilerria apainago orduan baino

- **Erref:** URN-011/047
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 01:42:55. **Bukatu:** 01:45:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Betiko lekuan dago hilerria. Lehen zaila zen zaintzen. Andreak laguntzen zion. Orain ormigoia botata dago, oso txukun. Oraingo enterradoreak zalantzak dituenean Praxkurekin kontsultatzen du.

26. Handik ez da inor bueltan azaltzen

- **Erref:** URN-011/049
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:47:05. **Bukatu:** 01:48:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

˜aki, Urnietako apaiza, laguna du. Edozer gauza esaten diote elkarri. Apaizari esaten omen dio gauza bakarra esaten dutela egia: Hara joan eta denak konforme egoten direla, inor ez dela behintzat itzultzen. Apaizak, mojak... denetik sartu du, baina inor ez da bueltan azaldu.</p>

Transkripzioa

-Iñaki (Urnietako apaiza), laguna dakat Iñaki. Edozein gauzak esaten diogu alkarri. Esaten diyot: "Gauz bat bakarra esaten dezue egiya: hara jun eta danak konforme egoten diala han. Ta hoixe bakarra esaten dezue egiya". "Zeatik? Ez al dezu ba sinisten?". "Sinisten det zeoze badala, baiño gauz bat, handik ez da iñor... Nik apaizak, monjak, maiña bat sartu dittut baiño iñor ez da azaltzen. Eze azalduko balitz neegana edo esango luke: 'aiba, Praxku Santa Agedara eramango diek, erotu ein dek edo', esango likek". Esaten diyot eta parrez eoten zan. Ez, ezta azaltzen. "Hoixe bakarrik esaten dezue, hara jun ezkeru ezta bueltatzen, han danak konforme eongo diela". "Egon zaitetz ixilik, esaten dit, zuk bestela haundiauak esango [dizkizue] ta".

27. Hildakoen beldurrik ez, bizi direnena bai

- **Erref:** URN-011/050
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 01:48:01. **Bukatu:** 01:48:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Behin kazetari baten galderari erantzun zion hildakoek ez diotela beldurrik ematen, baina bizi direnak bai.</p>

Transkripzioa

-Beste gauza bat ere esaten dezu ba zuk politta, hildakoak ez dizutela beldurrik ematen...
-Ez. Periodistan batek, aspaldiko kontua hau ia. Bai, etorri ta: "Ze mouz Praxku?" ta. Ez dakit zein periodista zan. "Hamentxe". "Zeiñek ematen dizu bildur gehiena, bizitzadunak edo?". "Eee, hildakuak ez dit nei bilddurrik ematen, bizitzadunak ematen dit bildurra". Bo, holakuak, holaxe etortzen zaizkit; askotan.

28. Boletan ume-umetatik

- **Erref:** URN-011/051
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:48:40. **Bukatu:** 01:51:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

<p>Bolatokia eta toka ziren orduan sagardotegi guztietan. Ume-umetatik hasi zen bera. Bostekoa botaz gero, bost zentimo ematen zieten zaharrek. Anai guztiak ibili dira boletan. Pena hartzen zuen enterradore lanak bola-saioren bat eragozten zionean. Leku askotan ibiltzen ziren boletan.</p>

29. Urnietako mendien izenak

- **Erref:** URN-011/054

- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 01:54:23. **Bukatu:** 01:57:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

Urnieta ekialdeko zenbait leku-izen: Zuluta, Onddi, Adarra-mendi, Aballarri, Irumugarrieta. Berastegiko muga: Amasa-mendia, Otso-lepo, Tximistarria...

30. Mugarriak ipintzen ibilita dago Lasarte udalerri bihurtu zenean

- **Erref:** URN-011/055
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 01:57:17. **Bukatu:** 02:00:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura

Laburpena:

Urnieta iparraldean: Buruntza... Mugarriak jartzen ibilita dago bera (lehen Lasarteko zati bat Urnieta zen; Lasarte ez zen udalerria). Lehengo alkate emakumearekin (Ana Urchueguia) harremana izan zuen. Lasaitasun handia izan zen berarentzat Lasarteren independentzia. Lan handia ematen zuen. Agintzeko jende asko eta lanerako gutxi garai hartan.

31. Antzinako Urnietako tabernak

- **Erref:** URN-011/059
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 02:07:00. **Bukatu:** 02:08:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Lehenago Urnietako kalean ere baserriak ziren. Udaleko bazkaria Dendaberrin egiten zen. Eliza aurreko taberna txiki bat zen. Sandutegi, Matxoenea eta Zapelenea, beste tabernak.

32. Karobiak eta txondorrak

- **Erref:** URN-011/062
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 02:11:06. **Bukatu:** 02:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak

Laburpena:

Karobiak eta txondorrak ere ezagutu ditu. Aitak idiekin ateratzen zituen ikatz-zakuak autobusera. Arreba eta biak Berastegiko mugaraino joaten ziren astoaz zakuak ekartzera.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com